



Presst

CVRE ESKUPAGO

IBILBIDE ORRIA

1. SARRERA

Herritarrok prest gaude bidea egiteko. Prest gaude erronka berriei ekiteko. Prest gaude kultura politiko berri bat eraikitzeko. Prest aro berri baten zimenduak eraikitzeko. Prest besteari eskua eman, lubakitik atera eta zubiak eraikitzeko. Prest gaude gure etorkizuna erabakitzeko. Pausoak emateko, protagonistak izateko. Prest gaude elkarrekin egiteko. Konplizitateak bilatzeko. Zer lortu nahi dugun erabakitzeko. Prest gaude.

Hiru urte eta erdiko ibilbidea egin ondoren, urratsa egitera goaz. Badugu abiapuntua, eta badugu jomuga: Gure Esku Dagok ziklo bat itxiko du 2019rako. Eskura txostenean jaso genituen erabakiaren aroaren oinarriak eta, oinarri horietatik abiatuta, 'Prest' ibilbide orria diseinatu dugu. Kultura politiko berri bat sortuz, aro berri baten zimenduak eraiki nahi ditugu. Horretarako, Gure Esku Dagok, batetik, testu honek jasotzen duen ibilbide orria eskaintzen du, eta, bestetik, euskal herritar eta eragile guztiei, sinesgarritasunean, zintzotasunean eta konfiantzan oinarritutako elkarlan eremua.

'Prest'-ek 2017a du ardatz, Gure Esku Dago bezalako dinamika batek ezin duelako epe ertain eta luzera begirako plangintza itxi bat diseinatu. Bizi dugun testuinguru politiko aldakorrek eta 2017an egindako lanek markatuko dituzte 2018an eta 2019an eman beharreko pausoak. Hori horrela, hiru ekimen nagusi aurreikusten ditugu datorren urteari begira:

- 1) Euskal Herrian egingo diren herri galdeketak
- 2) Erabakitzeko eskubidearen aldeko Itun Herritarra eta
- 3) ekainaren 10ean Bilbon egingo den mobilizazio zabala.

2. HELBURUAK

- A)** Euskal herritarrok gure etorkizun politikoa erabakitzea eta horretarako behar den eztabaida publikoa zabaltzea, baldintza demokratiko guztiekin.
- B)** Herritarrek ahalduntzea eta erabaki beharraz jabetzea, erabakitzeko eskubidean sakonduz printzipio demokratiko gisa.
- C)** Gizartean dauden mugak eta lubakiak erauztea: bizikidetza eta auzolana sendotzea eta elkarlana ilusioz eta baikortasunez hedatzea.

3. FILOSOFIA ETA TRESNAK

Erabakitzeko eskubidea euskal herritarron elkargune eta bilgune bilakatzen ari da eta adostasun hori behetik gora zehazteko unea da. Konplizitateak eta erabakiaren sarea auzolanean sendotzen ari gara: euskal herritarron artean, euskal komunitate osoarekin, eta demokratikoki erabaki nahi duten herri guztiekin.

Orain artean bezala, ehuntze eta adoste lanetan sakontzeko tresnei eutsiko diegu: mobilizazioak, akordioak eta galdeketak. Batetik, mobilizazio alaiak eta berritzaileak bultzatzen jarraituko dugu. Eta, bestetik, sensibilizazioan eta pedagogian sakontzen segituko dugu, erabakitzeko eskubidea ezberdinen arteko elkargune bilakatzeko eta kultura demokratiko osasuntsuago bat ahalbidetzeko. Horrez gain, herritarron erabakitzeko borondateak josiko dituzten adierazpenak, akordioak eta itunak bultzatuko ditugu.

Era berean, herri-galdeketen dinamika sendotuko dugu: tresna honen bitartez helburua zein den erakusten baitugu –erabakitzea, alegia–, bidea nola egin behar den ikasten dugu, herritarron zoru komuna adosten dugu eta herritarrak ariketa demokratiko batean ahalduntzea lortzen dugu. Labur esanda, erabakitzen ik(h)asten dugu eta erabakitzeak eskatzen duen gaitasuna geureganatzen dugu herritarrok.

4. ILDOAK ETA EKINTZAK

Lau lerro nagusiren bueltan eraikiko dugu bidea; bata bestearen osagarri:

A) GALDEKETAK:

Herri galdeketen eskutik hasi gara erabakia gauzatzeko eta erabakitzeke modua erakusten. Alegia, nola erabaki nahi dugun azaltzen. Izan ere, erabakitzen ikasteko modurik onena horretan aritzea da. Erabakitzeke ariketen bidez erabakitzeke eskubidearen eztabaida mahai gainean jarri nahi dugu, eta, auto-antolaketa oinarri, herritarrak ahaldundu. Galdeketen bidez, erabaki nahi dugunaren gutxieneke orubea finkatzen ari gara, behetik gora tokian toki adosten ari garen galderekin. Galdera hautatzeko ariketa kolektiboaren bidez, galderek bete beharreko baldintzak lantzen ditugu; nazioartean eskatzen den moduan, galdera zuzena eta argia izatea, benetako aldaketa bat posible egitea eta ondorio politiko zuzenak izatea. Horregatik, 38 herritan egin diren galdeketen olatua hauspotzen jarraituko dugu:

Galdeketen olatuak, 2017

Etxarri-Aranatzen, Arrankudiagan, Ispasterren, Azpeitian, Goierriin, Debagoienan, Aramaion, Bakaikun eta Diman egindako galdeketen segidan, ehun herri baino gehiagotan aurreikusten dira galdeketak, oraingoz. Hiru olatu nagusi egongo dira 2017an. Eta tartean egongo da data horietatik kanpo egongo duenik ere. Datorren urtea amaitzen denerako 600.000 herritar baino gehiago bizi diren eremuetara iritsiko dira galdeketak:

- **Martxoak 19:** Astigarraga-Hernani, Oiartzualdea (Erreterria, Lezo, Oiartzun, Pasaia), Tolosaldea (Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz. Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Zizurkil) eta Larrabetzu.

- **Apirilak 2:** Busturialdea (Bermeo, Busturia, Gernika-Lumo, Nabarniz, Kanala).

- **Maiatzak 7:** Arrigorriaga, Debarrena (Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Soraluze, Itziar), Durangaldea (Abadiño, Durango, Elorrio, Zornotza), Lasarte-Oria, Usurbil, Lea-Artibai (Aulesti, Amoroto, Berriatua, Etxebarria, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Lekeitio, Ondarroa, Ziortza-Bolibar), Legutio, Orozko, Uribe Butroe (Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Gatika, Maruri-Jatabe, Meñaka, Mungia), Uribe Kosta (Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz), Urola Kosta (Aizarnazabal, Azkoitia, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa, Zumaia) eta Zeanuri.

- **Ekainak 18:** Basaburua (Aizarotz, Arrarats, Beramendi, Beruete, Erbiti, Gartzaron, Igoa, Ihaben, Itsaso, Jauntsarats, Orokieta-Ola, Udabe), Bortziriki (Arantza, Bera, Lesaka, Igantzi, Etxalar), Imotz (Eraso, Etxaleku, Goldaratz, Latasa, Muskiz, Oskotz, Urriza, Zarrantz), Mendialdea (Araitz, Arano, Areso, Betelu, Goizueta, Larraun, Leitza, Lekunberri) eta Sakana (Altsasu, Arbizu, Arruazu, Iturmendi, Irurtzun, Lakuntza, Olazti, Uharte Arakil, Urdiain, Ziordia).

Galdeketak Euskal Herriko hiriburuetan

Galdeketen ildoak martxan jarraituko du. Besteak beste, 2017ko udazkenean beste olatu bat aurreikusten da. Baina Gure Esku Dagoren erronka Euskal Herriko hiriburuetara iristea izango da. Helburua ez baita Euskal Herriko herri guztietan galdeketak egitea, baizik eta erabakitzeko eskubidearen inguruko eztabaida, pedagogia eta egikaritzea euskal herritarren gehiengoa bizi den gunetara hedatzea. Hiriburuetako galdeketak posible izango dira, betiere, tokian tokiko errealitateak, indarrek eta nahiak ahalbidetzen badituzte.

B) ITUNA:

Erabakitzeko eskubidearen aldeko Itun Herritarra (2016-2017)

Erabakitzeko eskubidearen aldeko adosguneak sortzen ari dira han eta hemen;

bai herri galdeketen dinamikarekin uztartuta eta baita 2016. urtean zehar herriz herri landutako adierazpenekin ere. Adosgune horiek, herrietako edota eskualdeetako galdeketen orube komuna osatzen ari dira, erabakitzeko eskubidearen aldeko tokiko adierazpenak bihurtuta. Forma eta eduki anitzeko adierazpen horiek guztiak erabakitzeko eskubidearen aldeko Itun herritar batean bilduko ditugu datozen hilabeteetan. Itun horrek GEDren filosofia jasoko du eta baita erabakiaren inguruko edukia eta nolakotasuna ere. Herritarron itun hori Bilbon plazaratuko dugu, ekainaren 10ean egingo den mobilizazio jendetsuan.

Ekainetik aurrera, erabakitzeko eskubidearen aldeko Herritarron Ituna oinarri, Euskal Herriko eragileen itunari bide emateko lanketa hasiko dugu, Euskal Herri mailako ituna osatu dadin. Paraleloki, erakunde mailan ere, udaletatik hasi eta legebiltzarretaraino, itun herritar horrek bere garabide propioa izan dezan, erabakitzeko eskubidearen egikaritzearekin konpromisoa adieraziko duten aldarrikapen edo mozio instituzionalak babestuko ditugu.

C) MOBILIZAZIOAK:

Mobilizazio erraldoi batekin —giza katearekin— jendarteratu genuen mugimendua. Sintonia berri bat jarri genuen martxan: elkarrekin lan egiteko gaitasuna eta ilusioa. Eta, orain artean bezala, aurrerantzean ere, ildo hau jorratzen jarraituko dugu, unean uneko testuingurura eta beharretara egokituta; erabakiaren bidea denok elkarrekin egin behar dugula erakusteko.

Bilboko mobilizazioa (ekainak 10)

2017ko ekainaren 10erako mobilizazioa deituko dugu Bilbon. Erabakitzeko eskubidearen aldeko indarrak batuz, herritarron borondatea eta nahia plazaratzearekin batera, erabakitzeko eskubidearen aldeko Itun Herritarra aurkeztuko dugu, hau da, Euskal Herri osoan eraikitzen ari garen adostasun eremua.

D) ELKARLANA:

Euskal Herri mailako alderdi politiko, sindikatu, erakunde, fundazio, enpresa, kooperatiba, unibertsitate eta eragileen artean, Euskal Herrian aro berri baten zimenduak eraikitzeko proiektu ezberdinetan elkarlanean arituko gara. Erronka handiek eskatzen duten perspektiba mailarekin, anbizioz eta determinazioz, eta,aldi berean, elkarlanak eskatzen duen malgutasunarekin. Elkarrekin arituta

bakarrik lortu baititzakegu helburu handiak. Baina gure lan eremua ez da Euskal Herrira mugatzen, harago doa. Euskal komunitate osoaren elkarlana indartuko duten hainbat proiektuak ere sustatu eta bideratuko ditu Gure Esku Dagok, momentu historiko hauetan Euskal Herritik kanpo bizi direnak ere partaide eta protagonista izan daitezen.

5. AMAIERA

Ezina, ekinez egina. Erabakitzeke eskubidea erdigunean kokatzea lortu dugu. Orain, une erabakigarriari erantzutea helburu duen bideari ekitera goaz. Gure eskubideez, protagonismoaz eta erabakitzeke gaitasunaz jabeturik, erabakitzeke prest gaude, erabakitzeke beharra dugu. Ahalik eta azkarren, euskal erabaki eremua finkatu behar dugu, gure orainaren eta etorkizunaren jabe izateko. Elkarrekin zer egitera iritsi gaitezkeen sentitu nahi dugu. Eta horretarako, Euskal Herriko herritar eta eragile guztien indarra bilduko duen gunea izan nahi du Gure Esku Dagok. Anbizioz beteriko ibilbide orri honekin erronka potoloak jarri ditugu mahai gainean, amestetik sinestera jauzi egin dugu.

Gu erronkarako prest gaude. Eta zu beharrezkoa zara.